



NAPARDEATH



SINOPSISIA

Lehenengo filmean berpiztu eta bigarreanean Eusko Alderdi Banpiroa garaitu ondoren, Zumalakarregi zontzia Iruñeara abiatuko da bere burua euskaldunen errege izendatzeko asmoz. Bidea ez da uste bezain erraza izango ordea, Ezker Abertzaleak Antso Azkarra momia berpiztuko bait u, nafar erresuma berrezarri eta tronua berreskuratzeko asmoz. Nor izango da garaile tronua lortzeko dema honetan?

FITXA TEKNIKOA

Idea originala eta argumentua: Beñat Iturrioz
eta Xabier Padin

Zuzendaritza eta gidoia: Beñat Iturrioz

Ekoizpen zuzendaria: Jaione Irazu

Arte zuzendaria: Oskarbi Sein

Argazki zuzendaritza: Beñat Iturrioz

Zuzeneko soinua: Lander Llorens, Asier Razkin

Ikus-Efektu digitalak-VFX: Javi González

Makilajea: Leire Benito eta Ziortza "Ziggy" Arroyo

Musika: Beñat Iturrioz

Edizioa: Beñat Iturrioz

Ekoizpen taldea: Jaione Irazu, Oskarbi Sein,
Beñat Iturrioz, Gorka Estomba, Javi Gonzalez,
Mikel Alvarez, Ihintza Iturrioz, Xabier Cueto,
Etxahun Galparsoro, Julen Aldabe, Xabier Padin,
David Larrañaga.

Ekoiztetxea: Katihotsak Logia Kultur Elkarte





FITXA ARTISTIKOA

Zumalakarregi: Etxahun Galparsoro

Antso Azkarra: Eunáte Ruiz de Galarreta

Jon Tomas: Xabier Padin

Andoni: Xabier Cueto

Aztia: Jaione Irazu

Moderatua: Iraia Santa Kruz

Nabarrista: Julen Aldabe

Ekologista: Imanol "Felix" Artola

Feminista: Imanol Aristi

Bertsolaria: Ihintza Iturrioz

ZEHAZTAPEN TEKNIKOAK

Iraupena: 47 min

Hizkuntza: euskara

Formatua: DCP / HD digital

Soinua: stereo

Hautazko azpidatziak: euskara, gaztelera, frantsesa, ingelera.

Urtea: 2019

Herrialdea: Euskal Herria



EKOIZTETXEA


Katihotsak Logia Kultur Elkartea 2010 inguruan sortu zen, Xabier Padin eta Beñat Iturrioz zontziei buruzko filme bat egitea bururatu zitzairen egunean. Sekula kamera bat eskutan izan ez bazuten ere, bat lortu eta lagun artean film laburra grabatzeari ekin zioten. Emaizta **Ataun Of The Dead** izan zen. 20 minutuko lan honek Patxi Lopezen agintaldiaren hasiera du abiapuntutzat. Bertan, zientzialari karlista bikote batek Zumalakarregi berpiztea erabakiko du euskal politikan ordena berrezartzeko. Lagun artean ikusteko asmoarekin egin bazuten ere, Euskal Herriko leku ezberdinetatik filma proiektatzeko eskaerak jasotzen hasi ziren eta, apurka, hasieran irudikatu ere ezin zuten dimentsioa hartu zuen proiektuak.

Istorioaren bigarren zatia grabatzeari ekin behar genionean, filma aurrera ateratzen arituko ginen taldeak elkarte kultural bat sortzea erabaki genuen. Horrela sortu zen Katihotsak Logia Kultur Elkartea. Helburu nagusia euskal iruditerian ikus-entzunezkoen bidez eragitea zen.



Gauzak horrela, 2013an bigarren atala grabatzeari ekin genion, 2014an plazaratuko zen **Joxean's Hil Eben** 40 minutuko erdi-metraia. Lehenengo filmean zientzialari karlistek Zumalakarregi berpiztea erabaki bazuten, oraingoan Zumalakarregik Eusko Alderdi Banpiroko kideei aurre egin beharko die, hauek euren hegemonia politikoa eta biziraupenerako beharrezkoa duten "giza haragi eta odola" kolokan sumatuko baitituzte. Tartean, Eusko Alderdi Banpiroko kideek Agirre lehendakari banpiroa berpiztea erabakiko dute Zumalakarregiren zonbiei aurre egiteko. Horrela, Euskal Herriko tronua lortzeko zonbi eta banpiroen arteko dema dugu trilogiaren bigarren atal honen ardatz nagusia. Bando gerra berri bat, oinaztar eta ganboatar moderno eta friki batzuen arteko norgehiagoka.

2018an zehar, trilogiari amaiera emango zion **Napardeath** filma grabatzen aritu ginen. Prozesuan zehar Euskal Herrian barna, puntarik punta, ibili gara erreka, ibai, mendi, desertu eta glaziarretan. 150 pertsonatik gorak hartu zuen parte grabazioan, 7 hilabetetan zehar, egunerokotasuneko lanek uzten duten denbora librea baliatuz. Trilogiaren hirugarren eta azken atal honetan, Ezker Abertzaleak Antso Azkarraren momia eta nafar soldaduen momiak berpiztea erabakiko du nafar erresuma berrezartzeko asmoz. Horretarako Zumalakarregi zonbiari aurre egin beharko diote ordea, hau ere Iruñeara bidean baitoa euskal tronua eskuratu eta bere burua euskaldunen errege izendatzeko asmoz.




ZUZENDARIA

Steven Spielberg (1946ko abenduaren 18a, Txintxetru, Araba).

Euskal Herriko film zuzendari eta ekoizlea da. Basqueploitation aroaren sortzaileetako bat dela esan ohi da, eta zinemaren historian egondako film zuzendari eta produktore ezezagunenetako bat da.

Spielberg Segura Irratian irrati-antzerki obra txikiak zuzentzen hasi zen lanean. *Ataun Of The Dead* (2011) zuzendu zuenean ezagunagoa bihurtu zen. Kritikak eta publikoak tomateak bota zizkion. Euskal Herriko historiako "Z" saileko lehenengo film kutretzat hartzen da zinta. Bere ondorengo filmeab zientzia-fikzioa eta abentura landu zituen, *Azti Begia*, *Txerrineitor* eta *Joxean's Hil Eben* filmekin.

Bi Urrezko Karrakela irabazi ditu, *Joxean's Hil Eben* eta sekula aurkeztu ez duen beste film batengatik. Kritikariek zein ikusle arruntek zuzendari arrakastatsutzat jotzen dute, bere talentu eta batez ere alkandora moloiengatik. 2005ean, *Zerria* aldizkariak historia osoko zuzendari ertainena izendatu zuen.





FILOSOFIA

Ataun Of The Dead trilogia "zuk zeuk egin" filosofiaren barnean koka daiteke. Proiektu osoa auzolanean garatu da, baita *Napardeath* pastoral zinematografiko hau ere, trilogiaren azken atala.

Estralurtarrak Central Park-en lur hartzeaz kokoteraino gaude. Hori dela eta, ikusi nahiko genituzkeen istorioak gurera ekarri eta errealitate bilakatu nahi izan ditugu, euskal iruditeria eta pertsonaiak uztartu eta gure historia zinemara eramanez. Hau guztia nola ez, natural ateratzen zaigun umorea lagun, Xahok irudikatutako Zumalakarregiren bertsio libre bat marraztuz eta satira politikoaren eremuan hatz puntak sartuz. Euskaraz, gure hizkuntzan. Gure burua guk ez badugu imajinatzen, besteek imajinatuko baikaituzte.

PERTSONAIAK

Zumalakarregi zonbia eta Antso Azkarra momiaz gain, beste hainbat pertsonaia historiko agertzen dira filmean zehar:

Obanoseko infantzoiak, Manuel Larramendi, Albreteko Joana III, iPad-agirre, Katalina Erauso, Santa Kruz apaiza, Mark Legasse, Kattalin Agirre,...eta beste milaka pizti, izaki eta pertsonai.





PRENTSA KONTAKTUA

KATIHOTSAK LOGIA Kultur Elkartea
Prentsa kontaktua: katihotsak@gmail.com
Beñat Iturrioz 653728288 / Jaione Irazu 617996957